

Artzain baten janaria mendietan (1936-1950)

B.: gustian egoiten nintzen ni mendian, beti... Beti taloak erre bear goiz-atsetan, beti, ez zen... Ogi puska at, eta asteko... Ordian jatekoak iten baitzien etxetan, ordian ogia iten zen ta artoak, irina bazen ordian, arto-irina, bah, burrustaka, artaiek banin beti ausarki, ta ogi erdi bat asteko, baizu, etxeko ogia, ogi aundi batzu iten zien, ta ogi erdi bat asteko ta eguertako, eguertako ogi puxka at, ta bestenez taloa beti, beti taloa bai-bai.

E.: gasnaikin ala...

B.: gasnaikin, zingarraikin, ta luzaz eta auntz-esnia, auntzak deizten nitin ba ia eguberri artio, bazien bospasei zazpi-zortzi bat auntz, hek deizten nitin, auntz esnea ikaraarri maite nin, ta gero azkar e auntz esnia, iziarri azkarra da auntz esnia, ta ba. Badakit zonbait urtez, asteko, eta oai, buruilan-ta esnia lodi da, geo, eena, eta hura bear da man, ta aldi at erran zaan eta, eta ba aldi bat bano geio re, bordelesa zenak, ta eni so zen olaxe, ni zortzitik jiten bainintzen, ardiak antzutu niaur jiten nintzen, jatekoak-eta, ta aldi bat olaxe, ni oai bezala ordian e aise mintzatzene, ta eni so zun zankez, ta “zer ari xira eni so? Ze iten duxu so eni?” ta “undarrealdian egona nuk so iri, sobera nuk, ez duk ez koloriak gorri, bana beltzatiak tuk koloriak, beltzatiak, maiten dakoka esne... Esniai urik?”, ta “bo, ba xorta at eman diakoxut, ba”, “makok gero, ilen iz, eh, emakok, hilen iz, gero! Beltzatiak tuk koloriak!”, ta “bo, ba, maiten diakoxut, ba”, ta ez nakon biziki emaiten, ta gero, baizu, gain... Krema iten baitzin, geio ukaiteko zartzen nin, berdin gopor batean, sartzen nin hortaa, ta kazola atian, ta gain geioin ukaiteko, ta pentsa zazu ua, pentsa zazu ua lodia zen, ganita olaxe goraxotik bota, ganita etsik, oai, Pradel bazin leeno ganit pizu batzu, tak bota ta gainak atxikitzen zin, ea pentsa zazu ua ta taloekin ua, beti talo ta gasna, aatik bi talo règle bear nitin apairian, ta gero ederrak e bi talo, ta berdin bi opor esne, bai.

E.: Ahuntz esne guzia edaten zinien ala gasnatzen zinien?

B.: ba, in dut artako dina gasna koxkorra, bana ez ardura, urte batez ene ustez, kutsia, bena bestenez e, auntz-esnia gasna iteko meia da, meia da auntz-esnia, edateko iziarri azkarra da, esneik azkarrena larrazkenetan eta auntz-esnia, ez da auntz-esnia bezain azkarrik deus, ardiena bano re biziki azkarro da auntz-esnia, ta entzun izan tut nik eta hilik e auntz-esnia sobera azkar edan-ta, bena nik iziarri untsa artzen nin, ta bestenez e osaarria izana ut nik, ikaraarriko osaarria, ta geo kurritzen nintzan, berdin egun osoa kurri maiten nin, erran baitut xagoan beexten nitila axuriak, ta goizian askaldu-ta, berdin astiria etxola orduko, talo zaarrik balin bazen, are, ura karri bear baitzen turririk, berdin talo zaar ua hurain kartzian bidian jan aire, jakizazu berriz nik, taloak erre-ta, ez nintzala bi taloin beldur, eh!

E.: beraz ahuntzak esne orrendako bakarrik atxikitzen zinituen?

B.: bai, bai, bai, bai, ah ba.

E.: zuk edaten zinuen esne orrendako?

B.: bai, bai, ah ba.

E.: ta beste kabaleik bazinuten bordaldian?

B.: ez, ez, ez, besteik ez, ardiak besteik, beik eta sekula ez, ia, ia, ia, ori Luzaiden, gero, Luzaiden, ba.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala